



LIBURUA

Elebiduna



JUNE JORDAN ANTOLOGIA

MUNDUKO POESIA KAIERAK,
SUSA 2020

IGOR ESTANKONA

A ne Garcia Lopezek opari bat egin digu. June Jordan (June Millicent Jordan, Harlem, New York, 1936-Berkeley, Kalifornia, 2002) ekarri digu Munduko Poesia Kaiaretara, eta harekin batera bere ingeles beltza, bere Amerikako Jamaikako bisexualitatea, bere hanka bat han eta bestea hemen jarri egotea, zapalkuntza familiar hori: “nire aita izan zen, eta zioen ni nengoela oker,/ mutikoa behar nuela berak bat nahi zuelako (mutikoa) eta/ azal zuria goa behar nuela izan eta ile leunagoa behar nuela izan eta/ ez nuela mutikoe-kin burua galdu behar, baizik eta haieta-ko/ bat izan behar nuela (mutikoa)”.

Aitak opatzen zizkion klasikoen liburuak, eta aita hark berak, akatsik txikirenatik, jo eta deitu ohi zion demonio

isipu beltz madarikatua.

Zapalduen paranoiak. Sadikoenak eurrak izan ohi dira maiz.

Baina June Jordanek, suertez, beste bide bat aurkitu zuen. *The Progressive*-n idazten hasi zen, maitasuna izan zuen gidari, Nikaragua, Hegoafrika, olatu askatzaileen gainean ibili zen beti, emakume izateagatik, beltza izateagatik, azkarra izateagatik, artearen zentzu politiko bat garatu zuen txiki-txikitxuterik. Ingelesa bera ere bere-berea du, berrogei milioi pertsonak hitz egiten duten ingeles Ebonics hori. Berkeleyko Unibertsitatean Jordanek eman zion berbakuneari behar zuen tornua, arauak ezarri, estandarra finkatuz. Ana Garciaren lanak izan bide du, zentzu horretan, testu bat ingelesetik euskarara ekartzea baino sakonagoa eta

zailagoa, alegia, askapen lan bat ingelesarena eta are euskararena ere bai. Izan bide du itzultzea esklaboaren harrotasuna galdu zen puntu hartara: “Hein batean hazi ginen/ esklabo-ontzi bat geldiarazi eta/ tripulazioa gidatu zuten heroiekin: Cinque, adibidez (Afrikako mende berriko buru baten semea),/ 1839ko/ Amistad altxamenduaren gidaria,/ esklabotzatik garaipenerako bidean/ kapitaina hil zuen,/ hil zuen sukaldaria, hartu zuen agintea”.

June Jordan haize erauntsia bezala sartuko zaizu kontzientzian, eta irudipena izango duzu poesia militantea irakurtzen ari zarela baina lirismoari uko egin barik, eta belarrira xuxurlatzen ari zaizkizula aspaldiko kontu ahaztu modernoak. ●